

Lauaizeta

Lauaizeta parkeak 602 hektarea ditu, eta mugakide diren hiru udalerritan dago: Donostia (297 ha), Errenteria (207 ha) eta Astigarraga (98 ha). Donostiako hego-ekialdean dago, eta hiriaren hiri masa handiaren eta Gipuzkoako lurraldean barrurago dauden hurbileko mendien arteko trantsizio gune bat da.

"**Birika berdea**" izaki, eta hurbileko ingurunetik jasaten dituen hirigintza presio handien ondorioz, plan berezi bat onartu zen 1999an hiri inguruko parke honetarako.

Eremuaren erliebe muinotsua dela eta, erreka asko daude, eta horietako batzuek urak iparraldean isurtzen dituzte, Pasaiaiko badian, eta besteek hegoaldean, Urumearen arroan. Ibarbide txiki horiek erriberako zuhaitziz estalita daude oraindik ere, baina kasu batzuetan eraldatuta daude, erreka baten erriberarako egokiak ez diren zuhaitz espezieak dituzten hiri inguruko pasealeku txikiak daudelako; dena dela, zuhaitz horiek eginkizun garrantzitsua betetzen dute, bai habitat mailan, bai ekologia eta paisaia arloko korridore moduan.

Inguruko landaredi potentziala gehienbat hariztiz eta, erreka baten ertzetan, haltzadiz osatuta egongo litzateke. Baina giza jardunak eta, bereziki, nekazaritza erabilerek garrantzi handia dute eremu honetan, eta gehienbat haiek eragindakoa da egungo paisaia eta habitaten zer-nolakoa.

Jarduera horien ondorioz, honako hauek ezarri dira baso potentzialaren ordeiz:

- **baso gazte** eta eraldatuak, askotan autoktonoak ez diren espezieak dituztenak (akaziak, haritz gorriak...).
- **belardiak**, lur onenetan kokatuta, bazka izan daitezkeen aziententzat. Normalean, urtean bizpahiru aldiz segatu, ongarritu eta, zenbaitetan, belarki espezie batzuk ereiten dira. Ertzetan, heskaiak izaten dira askotan, biodibertsitatea handitzen ere laguntzen dutenak, haietan habiak jartzen dituzten eta elikatzen diren intsektuen eta hegazti txikien espezie askoren aterpea baitira.
- **sastraka**: basoen ertzetan, elorri zuriak, elorri beltzak, sasiak eta neurri txikiko beste espezie batzuk aurkitzen dira askotan, bai eta otadiak ere, basoaren degradazio etapa moduan.
- **lur landuak eta baratzeak**, ingurua itxuratzen duten zuhaizkara sailak: batzuetan baserri bati lotuta daude, eta beste batzuetan, berriz, bestelako jabetzako lurretan nekazaritzan aritzeko kokatu diren hiriko biztanleen aisialdi eta autokontsumorako jarduerak baino ez dira. Zenbaitetan, azken baratze mota horri itxura txarra hartu diote paisaiari dagokionez bezala herritarren pertzepzioari dagokionez ere, eta, horren ondorioz, Udalak baratze horiek antolatze eta sustatzeko lan ildoari ekin dio.
- **sailak**, kasuren batean haritz gorrienak, eta besteetan, berriz, zenbait espezie nahasita: haritza, gaztainondoa, urkia, haltza, gereziandoa, pinuak...

Unitate mosaiko horrek eraginda, egun, errealitatea oso zehatza da, hiri inguruko inguruneetan tipikoa dena, alde batetik hurbileko hirietako hirigintza eta industria presioa dagoelako, eta, bestetik, herritarrek aisialdirako eremu naturalak edo erdinaturalak eskatzen dituztelako, izadiarekin nahasita, inguruko habitat potentzialei eusten saiatzen baita.

Ez dago Lauaizetako faunaren erregistrorik, baina jakina da guztira **113 ornodun espezie** daudela, eta horietatik gutxienez:

- 3 espezie Iberiar penintsulako endemikoak dira.
- 11 espezie Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan daude.
- 9 espezie Hegaztiei buruzko Direktibak eta 10, berriz, Habitatiei buruzko Direktibak babestuta daude.

Hala bada, begi-bistakoa da Lauaizetak herritarrentzat, bereziki Altza eta Intxaurrendokoentzat, aisialdirako gune moduan izan dezakeen balioaz gain, eta elkarren ondoko belardiek, zuhaitziek eta baserriek gizakiarentzat daukaten paisaia balioaz gain, leku horrek natura balio handiko hainbat elementu dituela, eta udalerraren biodibertsitateari eusten laguntzen duela.

Lauaizeta

El **Parque de Lauaizeta** abarca una superficie de **602 hectáreas**, distribuidas entre tres municipios colindantes: San Sebastián (297 ha), Errenteria (207 ha) y Astigarraga (98 ha). Se sitúa en la parte SE de San Sebastián, y supone un espacio de transición entre la gran masa urbana de la ciudad y los montes cercanos más al interior del territorio gipuzkoano.

Su carácter de "**pulmón verde**", unido a las intensas presiones urbanísticas desde su entorno inmediato, llevaron a la aprobación de un **Plan Especial** para este parque periurbano en 1999.

El relieve colinoso de la zona trae consigo la existencia de numerosos arroyos que vierten algunos hacia el norte, a la Bahía de Pasaia, y otros hacia el sur, a la cuenca del Urumea. Estas pequeñas vaguadas están todavía hoy cubiertas de bosquetes de ribera, en algunos casos alterados por la existencia de pequeños paseos periurbanos con especies de árboles no adecuados para la ribera de una regata, pero que en cualquier caso cumplen una importante función tanto a nivel de hábitat, como de corredores ecológicos y de paisaje.

La vegetación potencial de la zona estaría constituida por **robledales** en su mayoría y por **alisedas** en las orillas de las regatas. Pero la actividad humana y, en especial, los usos agrarios tienen gran peso en este ámbito siendo en gran parte responsables de la naturaleza de los paisajes y hábitats actuales.

Esa actividad ha sustituido el bosque potencial por:

- **bosques** jóvenes y alterados, muchas veces con presencia de especies no autóctonas (acacias, roble americano, ...)
- **prados**, instalados en los mejores suelos para uso de forraje para el ganado. Generalmente se siegan 2-3 veces al año, se abonan y se siembran algunas especies herbáceas en ocasiones. En sus bordes a menudo se encuentran setos vivos que contribuyen también a aumentar la biodiversidad dando cobijo a muchas especies de insectos y de pequeñas aves que anidan y se alimentan en ellos.
- **matorral**: en los bordes de los bosques es frecuente encontrar especies de menor porte como espinos, endrinos, zarzas... y también argomales, como etapas de degradación del bosque.
- **cultivos y huertas**, plantaciones arbóreas que modelan la zona: en algunos casos asociadas a un caserío y en otras simplemente son actividades de ocio y autoconsumo de parte de la población urbana que se ha instalado en terrenos de distinta propiedad para realizar la actividad agrícola. En ocasiones, este último tipo de huertas ha generado una mala impresión tanto a nivel de paisaje como de percepción por parte de la ciudadanía, lo que ha impulsado al ayuntamiento a emprender una línea de trabajo para la ordenación de estas huertas y fomento de las mismas.
- **plantaciones**, en algún caso de roble americano y en otros de mezcla de especies como roble, castaño, abedul, aliso, cerezo, pinos...
-

Este mosaico de unidades ha generado a fecha de hoy una realidad muy concreta, típica de ambientes periurbanos que acogen, por un lado la presión urbanística e industrial de las ciudades cercanas y la demanda de la ciudadanía de espacios naturales o seminaturales de ocio, entremezclándose con la naturaleza que intenta mantener los hábitats potenciales de la zona.

No se tienen registros de la fauna presente en Lauaizeta, pero se sabe de la presencia de un total de **113 especies de vertebrados**, de las cuales al menos:

- 3 especies son endémicas de la península ibérica
- 11 están en el Catálogo de Especies Amenazadas del País Vasco
- 9 son protegidas por la Directiva de Aves y 10 por la Directiva Hábitats

Así pues, además del valor que Lauaizeta pueda tener como espacio de ocio para la ciudadanía, en especial para la de Altza e Intxaurre, y del valor paisajístico que la sucesión de prados, bosquetes y caseríos tiene para el ser humano,



▶ Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines

Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

es evidente que este lugar presenta una serie de elementos de alto valor naturalístico y contribuye a la biodiversidad del municipio.